

Astelehen goiza zen eta Artxandara gindoazen autoz.
Azken egunak zituen 2010eko udak.

— Azkuna alkatea bezala, Bilbo gu gabe nola da-
goen ikustera!

Umorea zuen Irantzuk larritasunean ihesbidea. Auto-
aren atzealdean bi neskok, aurrean mutilak: Karra txofer
eta alboan Luka. Lau gazte genrudien, mendi-buelta egi-
toko ideiarekin; Lukak prestatutako patata-tortillaren
usainak areagotu egiten zuen sentipen hura.

— Bat ezin dute atxilotu patata-tortilla tupperra
orkatilen artean duela, antietetikoa da —mendiko bo-
ten artean zeraman Irantzuk fardela.

— Saiatu tupperwarea eta atxiloketa esaldi berean
sartzen. Saiatu, saiatu! Tipularik jarri al diok?

— Pixka bat.

— Seguru gaituk, orduan.

Musikaren bolumena igotzeko aprobetxatu zuen
Karrak.

— *No pasarán! Los venceremos, amor, no pa-
sará!* — Carlos Mejía Godoy kantari koruan jarraitu
penon denok —: *aunque no estemos juntos, te lo juro:
no pasarán!*

Lukaren saioko sintonia zen, egun hartan ohi baitu erresonantzia sakonagoak eragiten zizkiguna. Kantuan iritsi ginen Artxandara. Hantxe geunden Libre irratriko kideok, eguzkiak hirian zangosagarriak berotzen zizkion bitartean. Zain egoteko modu bat da hostoaren dardara irailean.

Hitz egin beharreko guztiak hitz eginda geneuzkan. Preso eramaten nindutenean Karrak hartuko zituena osteran nire programaren ardura eta irratiaren zuzendaritza, eta Irantzuren ordezkia ere prest zegoen tertulia politikoa gidatzeko. Asanbladan erabaki geneuen ez ezkutatzea eta kazetari-lana egiten jarraitzea.

Lukak zortea izango zuen akaso, bazitekeen fitxatuta ez egotea. Lauzpabost hilabete zeramatzan gurekin, sarean abian jarri genuen telebistan euskal gatazka inguruko informazioa atzerrirako lantzen. *Tranzatlantikoa* deitzen genion hibrido poliglota lotsati bat zen. Hirian nora ez eta, etxean hartu nuen apopilo, trukean irratiari kolaboratzekotan. Egongelako sofa-oheta eskaini nion, neuretzat hartua baineukan gonbidatuen gela, ama bere azken harreman hondoratutik "sasoi baterako" etxera etorri zitzaidanetik.

Denbora oso laburrean, inori axola ez zitzaion bazterreko hedabide minoritarioa izatetik "Segiren irratia" izatera igaro ginen Espainiako egunkarietan eta, jauzi bakar batean, EIArekin kolaboratzen zuen hedabidea izatera. Entzuleak eta jazarleak ugaritu zitzaizkigun. Karisma handirik gabeko zutabegile batek terrorismoaren goraiapamena egiteaz akusatatu gintuen. Azken astectan zelatan geneuzkala sumatzen genuen, Irantzuk eta biok kalez jantzitako poliziaen jarraipenak jasan genituen. Argiak eta itzalak gauean.

— Biharko erosi dut autobus-txartela —esan zigun Lukak.

Madriren lehengusu bat bisitatu eta Habana irizultzekoa zen, zain zeuzkan ama eta neska-laguna.

— Zakurrek dohainik eramaten ez bahaute! —izterrean txaplaka egin zion Karrak.

Igandezaleentzako mahai batera atera genituen garardoak eta patata-tortilla.

Kideei begiratu nien. Irudipena, atxiloketaren hurbilak edertu egiten ote zituen, lehendik ere hala neritzen arren.

Karra eta Irantzu ohaide izanak nituen, urte luze-tan noizbehinka bata eta bolada labur baina intentsu batez beste; eta sinetsita nengoen horrek ahaidetasun moduko bat ematen zigula. Ez nuen seme-alabarik espero larru-truk; neba-arrebak bilatzen nituen, ahalik eta gehien. Niretzat sexua bazen itun moduko bat, ohetik kanpo ere elkar zaintzen jarraitzekoa. Elkarrekin binan-binan eskusiboki partekaturiko gauetan zubiak jasotzen genuela egiten nuen, nigan-dik amorante bakoitzarengana eta alderantziz, guk beste inork zapaldu ezinekoak: Salbekoa, Mesedeetakoa, Erriberakoa. Zubi konplizeak. Zubi beti binakoak. Izatez, endogamiko samarra zen gure erredek-zioa.

— Hire erruz, bistan da —baiezatu ohi zuen Karrak.

Bera zen anaia nagusia, irratriko lehenengo liberatua, denon artean zaharrena, urtebete atzera aita egin zenetik soldatapeko lanak albora utzita zituena. Aldi-ka baino ez zen azaltzen estudioa. Bilbora aldatu nintzenetik ezagutzen nuen.